

Bizkaiko metalgintzako langileek lantokiak gelditu dituzte eta kalera atera dira bigarrenez

Gaur, ekainaren 30ean, Bizkaiko metaleko langileek lantokiak hustu eta kaleak bete dituzte. Zailtasun guztien aurrean, patronalaren lantoki barruko mehatxuak eta poliziaren basakeria barne, greba egun historikoa izaten ari da. Durangoko Arrianda poligonoan, zehazki, langile talde bat gosaltzen ari zela Ertzaintzak kargatu du eta langile bat atxilotu du. Lantokiak hutsik egoteagatik mendeku bila? Greba desitxuratzeko saiakeren gainetik, arrakasta izugarria izan da.

Grebaren jarraipen zabala langileen konpromisoaren isla da, eta patronalari mezu hori helarazi nahi diogu: bidezkoa den hitzarmen bat lortu bitartean borrokan jarraituko dugula. Bihar bertan, greba egun bat deitu dugu, aurtengo hirugarrena izango dena sektorean.

Hainbat sektore eta herrialdeetan egiten ari garen borrokek, gizarte justuago bat ekarri behar dute. LABek borroka honetan aurrera egingo duela iragartzen du, bidezkoa den akordioa lortu arte. Azken finean, bidegabekeria eta irabazi metaketaren aurrean elkartasuna eta konpromisoa irudikatzen ari dira parez pare.

Hamaika sektore, borroka bakarra!

Bizkaiko metaleko langileak, eutsi borrokari, jo ta ke irabazi arte!

Euskal Herrian, 2022ko ekainaren 30ean